SINESTEN DUT

Jainkoa bat bakarragan dut sinesten:
Abbagan; halaxe sinesten zuen Jesusek.
Ahalguztidunagan dut sinesten
zeru-lurren kreatzaileagan
nire ama bezalakoa dela
eta fida naitekeela hartaz.
Sinesten dut, hala ikusi baitut
Jesusengan, Seme sentitzen zen harengan.
Sinesten dut, Abba ez dagoela nigandik urrun,
baizik hurbil, alboan, neure baitan,
haren **Hatsa** sentitu bezala egiten dut,
arnasten nauen Haizekirri ezti bezalako,
bide egitea errazten didalarik.
Sinesten dut, Jesus, gizon baino gehiago,
Bidali bat dela, Mezulari bat.
Sinesten dut, Jesusen hitzak Abba-ren hitz direla.
Sinesten dut haren egintzak Abba-ren mezu direla.
Uste dut, Jesusi izen hau ematen ahal diodala:
gure artean presente den **Hitza.**
Jainkoa bat bakarragan dut sinesten:
Aita, Hitza eta Haizea dena,
zeren Jesusengan, Semeagan, sinesten baitut,
Abba-ren Espirituaz betea den gizonagan. *(José E. Galarreta).*